

TOKIKOM **Pil-pilean**

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko abendua • 298. alea



Martin Luke

**Delitugileen motibazioa ulertzea
da kriminologoaren lana**

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**

Gure ipuina...



... errealitate bihurtuko da aurten ere

Abenduaren 24an, eguaztena

Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria

11:30ean zubian

Euskaltzaletasunaren suak epeldu gaitzala urte berrian



Euskaltzaletasunaren alde:



Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Egoitz Unamuno Diseinua: Iñigo Urribetxabarria Maketazioa: Oier Larreategi
Azala: Fernan Oregi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Tripafesta taldea,
Soraluzeko
Gazteria

TRIPAFESTA Afaltoki begano-begetarianoa

Hileko azken ostiraleroako afaltoki honetan, eskaintza begano - begetarianoa egiten dugu. Tripafesta antolatzen dugunon asmoa barazki eta zereletan oinarritutako jakiak eskeintzea da, animalia jatorriko zenbait jakirekin konbinatzeko aukera dago eta.

Sasoian sasoiko elikagaiak, gorputzerako osasuntsuak eta naturarekiko errespetuz ekoiztuak erabiltzen saiatzen gara, inguruko ekoizleen lana zaindu eta babestu asmoz. Afaltoki hau aldarrikapenerako gune ere bilakatzea dezagun nahi dugu, joera osasuntsuetatik urruntzen gaituen bizi-ereduaren aurrean, bizitza patxadaz eta osasunez dastatzeko proposamena eginez.

Zenbat eta gehiago izan eredu horretara inguratzen garenak, orduan eta hobe. Asmo horretan, guztion poltsikotarako eskuragarri diren prezioak eskaintzea nahi dugu. Norbaitek zailtasunik badu, lan-taldeko norbaiti aipatu diezagula. Ez dadila xoxa izan afariotaz gozatzeko eragozpena.

Diru irabazia, Gaztetxeko ekintza eta gastuetara bideratuko da, herritik jasoa herriri itzultzeko ideiarekin.

Eskerrik asko zuri, jale, proposamena egi bihurtzeagatik.

On egin deizula!

Gara-gune
elkartea

Eskerrik asko plazentziarrei

Gara-gune osatzen dugunok, Pil-pileanen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari, baimena eman eta gure eskulanak saltzeko mahaiak lagatzearen, brigadari eta udaltzainei, emandako laguntzarengatik, eta Plazentziako herri osoari eskaini digun harrera beroagatik. Gustura asko bueltatuko gara berriz ere. Milioi bat esker, zorionak eta urte berri on!

Soraluzeko EAJ
Udal taldea

Soraluze berria eraikiz!

Hilaren 17an onartu ziren 2015ko udal-aurrekontuak. Azken 4 urteetan, nahiz eta oposizioan egon, gure taldeak udal-aurrekontuen onarpena posible egin du. Kontutan eduki behar dugu udal-aurrekontuak, udalak urtetik urtera, herria eraikitzeko, duen tresna garrantzitsuena direla. Aurten, badago nabarmentzea nahi dugun gertaera bat. Udal-aurrekontuek, herritarren zuzeneko parte-hartzea eta ekarpenak izan dituzte. Guzti hau posible izan da Alkarrekin Soraluze Eginez prozesuaren baitan. Eta jakitun gara herritarren artean prozesu horrek sortu duen nahia eta ilusioa. Soraluzeko EAJ etorkizunak politika egiteko beste eredu bat eskatzen duela jabetuz, hurrengo urteetarako lan-dinamika berria egituratzen ari da buru belarri. Ondorioz, herriko eragile, erakunde eta herritar guztioi deia luzatzen dizuegu zuen parte hartzeaz, Soraluze berria, denon artean eraiki dezagun! Informazio gehiago www.soraluzepnv.com

Mus txapelketa



GAZTELUPEKO MUS TXAPELKETA

Sailkapena:

1. Gordy eta Txo (Txapela + 500 €)
2. Patxi eta Elorza (300 €)
3. Eguren eta Alonso (150 €)
4. Fores eta Julio (Ardo botila erraldoi bana)

Abenduaren 28an mus txapelketa azkarra.

Bittartetik



Inma
Matute

Soraluze elkartasunetik

GKE-ek laguntza eskatuz bonbardeatzen gaituzten garaiotan, telebistek programa solidarioak eskaini eta pertsona ezagunek euren gauzak oparitzen dituztenean kamera aurrean azaltzeko...

Konpromisoa eskuetan taldekook badakigu zelakoa den herri honen elkartasuna, behar izan dugun guztietan hor izan dugulako. Azkenengo aldiz Bergarako elikagaien bankutik laguntza eskatu zigutenean, aurrez ia abisatzeko astirik izan barik 435 kilo jaso genituen. Laguntza horrekin familia askok poztasun gehixeagorekin eta tristezia gutxiagorekin pasatu ahalko dituzte egun batzuk.

Eskertu nahi genituzke goxogintzan parte hartuz edo erosiz euren ondarea jartzen duten persona guztiak, gurea baino txiroagoak diren herrietan egitasmoak gauzatu ahalizaten laguntzen dutelako. Ez genituzke ahaztu nahi bi urtean behin tonbola antolatzen laguntzen diguten pertsonak. Buru-belarri panpinak jartzen jarduten dutenak, euren ekarpena egiten duten merkataria eta boletoak erosten dituzten herritarrak, zoragarria da.

Konpromisoa eskuetan taldekook egitasmo berri bati helduko diogu datozen egunotan. Argazkiak saltzeko ekimena jarriko dugu martxan Kontrargi argazki kolektiboarekin batera. Kolektiboak argazkiak oparitu dizkigu eta Gaztelupe tabernak bertako horretan lanok eskeitzeko aukera eman digu. Ilusio handia jarri dugu kontu honetan, guretzako ekimen berria delako eta espero dugulako Soraluzek erantzungo duela, beti bezala. Gainera, Olentzero eta Mari Domingiri lana errazteko modua ere bada.

ARMENDIA
JATETXEA



Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Etxabe Harategia



**Euskal
txabalkia
Bildotsa**

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

“Detektibe pribatua izateko ikasketak egingo ditut orain”

Martin Luque (1992, Soraluze)

Jean Pinatel kriminologia saria jaso berri du.



Martin Luque, kriminologoa.

Lau urteko graduaren ostean EHUko lehen promozioko kriminologoetako bat da Martin Luque. Karrera bukatu berri du eta kriminologiako euskal institutuak esleitzen duen sari nagusietako bat jaso du, Jean Pinatel saria, kriminologiari ekarpen interesgarria egiteagatik. Ikerketa lan batean oinarrituta, lehenago delituren bat egin duen pertsonak zein kasutan bererori daitekeen aztertu du.

Zorionak! Zertan datza zehazki garatu duzun lana?

Kriminalitatearen alorrean pertsonak erasotzeko arriskua noiz duten aztertu dut. Nola jakin dezakegu espetxetik irtean direnek berriz ere ez dutela deliturik egingo? Ignazio Subijana audientzia probintzialeko magistratuaren lehendakariari elkarrizketak eginaz eta testen bitartez gaia aztertzen ahalegindu naiz.

“Pertsonak erasotzeko arriskua noiz duten aztertu dut”

Zergatik aukeratu zenuen kriminologia ikastea? Zerk erakarri zintuen?

Batxilerra bukatu eta erizaintza eta gero bigarren aukera moduan nuen kriminologia. Notak baldintzatutako erabakia izan zen, hasiera hartan zehatz-mehatz kriminologia zer zen ere ez nekien. Supo-

satzen dut kriminologiari buruzko hainbeste telesail ikusita piztu zitzaidala harra.

Zein da ba kriminologo baten lana?

Delitua, delitugilea, biktima eta delitua- ren lekua aztertzen duen zientzia da kriminologia eta kriminologoak psikologia, zuzenbidea eta soziologiaren esentziak kontuan hartuta garatzen du ikerketa. Espetxeetan, poliziarekin, detektibe moduan, udaletan... aritu gaitezke, delitua aztertzen edota prebentziorako proiektuak garatzen, bullying kasuetan esate baterako. Nik detektibe pribatua izateko ikasketak egingo ditut orain.

“Kriminologiari buruzko hainbeste telesail ikusita piztu zitzaidan harra”

Zein ekarpen egin dio edo egingo dizkio kriminologiak gizarteari?

AEBtan kriminologoak serieko hiltzailak aztertzen ditu, Ingalaterran poliziarekin egiten du lan eta bi estatuotan delinkuentzia-maila murriztea lortu dute azken urteotan. Euskal Herrian Kriminologiaren Institutuak terrorismoaren inguruan jarduten du, biktimekin txostenak egin eta espetxeetan daudenen baldintzak aztertzen ditu. Gurean droga-trafikoa eta lapurretak ugariak dira eta horrek prebenitzeko planak garatzea ere

oso garrantzitsua da etorkizunean has ez daitezen.

“Gurean droga trafikoa eta lapurretak ugariak dira”

Pako Etxeberria forentse eta kriminologoa ere ezaguna da gure artean

Bai, Aranzadiko lehendakaria izateaz gain ekarpen garrantzitsu ugari egin dizkio zientziaren alorrari. Lasa eta Zabala- ren eta Jose Breton eta bere seme-alaben kasuak ikertu ditu, eta, orain, 1936ko Gerra Zibileko hobi komunak ikertzen dihar- du. Berarekin aritu izan gara hobiak iker- tzen eta lan konplexua da. Gerra Zibilean erahilketa bortitzak egin ziren, eta bere lana da azken batean eraildakoen infor- mazioa aztertu eta senideei helaraztea.

Zuri zein kasuk harritu zaitu gehien?

Ed Kemper polizia edota Ted Bundy udaleko arduradun psikopatenak. Lehen- ak bere ama eta aiton-amonak erahil zituen eta bigarrenak 30 emakume. Biak kargu publiko garrantzitsudun pertsona zentzudunak ziren, harrapatu zituzten arte. Psikopata, bortxatzaile eta hiltzai- leek osasun-mental ona dute; pertsonak dira, motibazio batzuk dituzte, modu eta helburu batzuk. Horrek ulertzea da gure lana.

Mugi txartelaren erabiltzaileak

%64

Zuri esker garraio publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa

Plaentxia.eus, komunitatea eratzeko lehen fasea



Plaentxia.eus webgune berriaren proba-bertsioa.


Bidean da Plaentxia.eus webgune berria eta urte berriarekin batera izango da ikusgai, nahiz eta urtarrila amaitu bitartean hobekuntzak egiten jardungo dugun. Datozen egunetan komunitatea eratzeko lehenengo fasea gauzatuko dugu, aurrez komunitatean parte hartzeko nahia adierazi diguten herriko 25 eragilerekin. Lehenengo fase hori amaitu ostean,

edozein talde edo norbanakok izango du bertako kide izateko aukera. Esan beharrik ez dago, komunitateak ahalik eta kiderik gehien izatea dela Pil-pileanen asmoa, horixe delako soraluzetarron komunikazio plaza nagusia izaten jarraitzeko ezinbesteko osagaia.

Hobekuntzak

Komunitatearekin batera aktualitatea, multimedia eta zerbitzuak atalak izango ditu Plaentxia.eus-ek, eta egunerokoari jarraipen handiagoa egin eta ikusentzuzko gehiago lantzea izango dira, besteak beste, interneten jarduterako orduan ezarri nahi ditugun hobekuntza nagusiak. Sare sozialak eta agenda eguneratzeari ere garrantzi berezia emango diogu. Azken batean, herritarrek momentuan herrian gertatzen denaren berri izateko bitartekorik kalitatezkoena eskaintzen ahaleginduko gara.

FotoNotizia



Argiz betetako mosaikoa erabakitzearen alde

Ehundaka herritar hurreratu ziren zapatuan Gure esku dagok antolatu zuen ekitaldira. Ekitaldian, hautestontzia eta Gure esku dago leloa marraztu zituzten ixotutako kandlekin. Momenturik hunkigarrienak Ezoziko Ama abesbatzak kantatu zuenean gertatu ziren. Jakinarazi zuten, datozen egunotan hasiko direla ekainean estadioetan egingo den ekitaldirako "joskintza lanetan". Argazkia: Carlos de Cos.

Sareren autobusak Bilbora joateko

Sarek autobusak antolatu ditu herritik urtarrilaren 9an Now Euskal Herrira le-mapean Bilbon egingo den mobilizazioa joateko. "Sufrimendua ezabatu eta konponbideari lehio bat irekitzeko" helburuarekin "ezohikoa" izango den mobilizazioan parte hartzeko dei egin dute. Izena emateko zerrendak tabernetan jarri dituzte. Horrekin batera gabonetan Sarekide egiteko aukera eskainiko dute jai egunik garrantzitsuenetan kalean jarriko dituzten mahaien bitartez.



Borinaga PSE-EEren alkategai

Patricia Borinaga izango da PSE-EE alderdiaren zerrerdaburua maiatzeko udal hauteskundeetan. Halaxe adierazi zuen Patricia berak Iñaki Arriola aldamenen zuela abenduaren 10ean alderdiaren egoitzan egin zuen aurkezpenean. Alkate izateko asmoarekin aurkeztuko dela adierazi zuen eta bere lehentasuna lanpostuak sortzea izango dela. Arriolak bere aldetik, "Patricia lanerako duen gaitasuna" goraiatu zuen, nabarmenduz bera Jaurritzako Garraio sailburu izan zenean bere idazkaritzan egin zuen lana.



ALKARREKIN
soraluze eginez



ONTZIRATU ZAITEZ

Azaroko irabazleak

- Alazne Arizaga - Mari Cruz Zuloaga

Saria: 25€ herriko komertzioetan gastatzeko



Artisauen azokatxoa domekan

Domekan herriko hainbat artisauk euren produktuak erakutsi dituzte Kalebarrenen. 11:30etik 14:30era bitartean izango da.

Kontrargikoen argazkiak salgai, Haitiri laguntzeko

Misio taldea dirua biltzen ari da, Haitiko Marbial herriko eskola hornitzen laguntzeko. Datorren martitzenetik aurrera Kontrargik dohaintzan emandako Eli Lakuestaren eta "Biribiltxoren" hamar argazki jarriko dituzte salgai, bakoitza 25 euroan, Gaztelupe tabernan. Duela gutxi Bergarako elikagai bankua hornitzeko janari bilketa ere egin zuten eta guztira 450 kilo produktu batu zituzten, iaz baino 200 kilo gehiago. Misio talde oso pozik agertu da, "Soraluzek krisiak jota jarraitzen duen arren, batutakoak herritarren arteko elkartasuna adierazten du, txalotzekoa benetan". Hartara, "eskerrik beroenak" helarazi nahi dizkiete kanpainarekin bat egin dutenei.



Comisiones garaile GOLEn

Abenduaren 1ean hauteskunde sindikalak egin ziren Golen eta lehen aldiz Comisiones Obreras sindikatua izan da nagusi hiru ordezkariarekin, 31 bozka jaso ostean. LABek ere hiru ordezkari izango ditu (29 bozka), ELAK bi (22 bozka) eta ESK-CUISek bakarra (10 bozka). Goleko iturriak azpimarratu nahi izan du "Comisionesez lehen aldiz aurkeztuta lortu duen emaitza, aurreko lau urteetan ELAK 6 ordezkari eta LABek 3 izan dituzte eta".

4.613.308 euroko aurrekontua

Bilduren aldeko bozkekin eta EAJ eta PSE-EEren abstentzioarekin onartu zen eguaztenean datorren urterako aurrekontua: 4.613.308 euro. Alkateak azpimarratu zuen "inbertsio maila handiko aurrekontua" izango dela. Zehazki, 843.772 euro bideratuko dira inbertsioetara, eta kaleko argiteria egokitzeko erabiliko da diru partidarik handiena: 240.000 euro. Horrekin batera Smart Ciy egitaspora bideratuko dira 40.000 euro, Errabalen irisgarritasuna hobetzeko 153.000, kiroldegi gaina egokitzeko 66.700 eta kiroldegi barrua egokitzeko berriz 10.500 euro. Hirigintza plan orokorrarekin jarraitzeko berriz, 85.300 euro bideratuko dira.



Eguazteneko udal batzarra.

EAJ eta baita PSE-EE-k udal gobernuak euren proposamenak kontuan hartu izana aipatu zuten abstentzioa emateko arrazoi moduan. EAJk, abstentzioa emanaz, aurreko hiru urteetan bezala aurrekontuak onartzeko bidea eman duela nabarmendu zuen, "argi eta garbi gelditzen delarik Soraluzeko EAJren konpromisoa bai herriarekiko eta baita herritarrekiko ere". Alkarrekin prozesuari "erabateko babesa" eskaini zion: "eredu berri hau sustatu bultzatu eta garatuko dugu herri mailan hurrengo urteetan ere". PSE-EEK ere udal gobernuaren "jarrera ona" aipatu zuen abstentzioaren arrazoi moduan. Alkateak bere poza adierazi zuen legegintzaldiko azken aurrekontua onartzeagatik eta "aurrekontua Alkarrekin prozesuaren mesedetan" jarri dela zehaztu zuen.

Egitasmo berriak

Egitasmo berri ugari jaso dira aurrekontuan, besteak beste, Alkarrekin prozesuan jasotakoak. Etxebizitza alorrean 10.000 euro bideratuko dira eraikinen efizentziara. Ongizatean, elikagaien bankua sortu eta edadetuen egoera aztertuko da. Iaz baino 8.000 euro gehiago izango dira Euskara Plana garatzeko eta parekidetasuna sustatzeko. Hezkuntzan 50.000 euro bideratuko dira PHlko patioa estaltzeko. Tokiko garapen ekonomikoa dinamizatzeke enpresa bat kontratuko da eta diruz lagunduko da merkatarien elkarte. Ingurugiro arloan 3 auzokonposta gune berri ipiniko dira eta 46.000 euro bideratuko dira baserribideak konpontzera. Kiroldegiko zerbitzua indartzeko 18.666 euroko partida izango da eta futbol zelaia egokitzeko 10.000koa. Antzokia txukuntzeko (besaulkiak, argiak, soinua, proiektorea...) 17.780 euro. Komunikazioa izango da beste berritasunetako bat: 25.000 euro bideratuko dira. Azkenik, 20.000 euro bideratuko dira goi karguen liberaziorako eta 79.731 euro kontratazio berrietarako.

1.711

Enpresa berri



Zuri esker

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.





URTARRILA
Kromo-bilduma

Gogoratzen Sorako kromo-bildumak zelako zalaparta eragin zeban herrixan? Zenbatek amaittu zeben? Seguru oindio be jarraitzen duela errebentak.



OTSAILA
Euskal Aratosteak

Horrenbeste gaztetxo euskal mozorroz jantzitta ikustiak zirrara berezi bat eragiten dau. Lan haundixa hartzen da, baina gero eta polittagua da.



MAIATZA
Hezkuntza plazara

Hezkuntzako hainbat eragileren lana eta elkarlana bistaratu zan plazan. Badaukagu, bai, zer egina geure burua hezten.



EKAINA
Giza katea

Horrenbeste herrittar katai eta bide berdinian elkarri eskutik helduta ikustia garrantzitsua da, baina garrantzitsuagua danak barrez ikustia...



IRAILA
Zutarriaren sukarra

Hilabetez beste konturik ez zan izan herrixan. Komeni jaku eza-gutzia mendigainian zer altxor daukagun. Jakin izan bagendu lehenago ipiniko genduan zutik...



URRIA
Liztor beltzak

Bederatzi apixa pozoittu dittue eta batek daki zenbat geratu diran topatu barik. Neguan lur azpira sartu dira baina udaberri-xan urtengo dabe berriz...

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

MARE
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUM
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 GORALUZE



MARTXOA

Orkestra sinfonikoa

Badira ehun urtian behin gertatzen diran gauzak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa herrixan ikustia izan da horretako bat. Hurrengua herriko musikarixekin...



APIRILA

Bandera falta

2013ko azaruan ipini zan aspaldiko partez bandera espainiarra udaletxeko balkoian, eta 2013ko apirilian desagertu zan. Inok ez dau erreklamatu...



UZTAILA

Ingurumen eguna

Jaboi naturalak egiteko tailerra izan zan Zero Zaborrek eta Alkarrekinek antolatutako egun eder horretako ekimenetako bat. Badaukagu zer ikasixa nagusixengandik...



ABUZTUA

Arranoa konfiskatuta

Zer esan leike? Inok ez dabela ulertzen ETAk armak laga eta bi urtera Espainiako gobernua egiten diharduana.



AZAROA

Alkarrekin

Denporatxo bat bihar izan dogu konturatzeko alkarrekin erre-zago egiten dirala gauzak. Bide luzia izan deila elkarlanarena.



ABENDUA

Euskarak 365

Zer modu hoberik urtia amaitzeko eta barrixa hasteko euskaltasunaren suaren bueltan gure hitzak errepikatzea baino? Euskaltzaletasunak batzen gaittu.

Birziklatze tasa

%42

Zuri esker
Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60ra iritsiko da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa

Hainbat tabernarik *Tabernatour zirkuitua* jarri dute martxan. Helburua da zapatuak girotu eta jendea bertan gelditzera animatzea, jendea taberna denetan egotea.

Zer iruditzen zaizu tabernen zirkuitoa?



Luci Silva

Gure tabernarendako ekimen onuragarria dela iruditzen zait. Nik ikusi ditut aurpegi berriak, lehenago etorri ez den jendea sartu da eta ilusionatuta nago. Azken batean jolas bat da.



Mireia Gabilondo

Igerri da jende ezberdina sartu dela eta zapatuetan ohikoa baino jende gehiago ere ibili dela. Batzuk prest daude jokatzen eta beste batzuk ez. Kontua da denok nahastea eta giro ona sortzea. Beharbada jende gazteak errazago egiten du hori.



Jokin Etxaniz

Helburua oso noblea da eta ideia oso ona baina jendea behartzen da nahi ez duen lekura joatera. Neretzat egokiagoa litzateke bi zigilu hutsik lagatzeko aukera ematea. Taberna batean ez sartzeko arrazoiak ez du zertan ideologikoa izan: musika, edariaren tenperatura... eta beste arrazoi batzuk ere badira, nere ustez.



Mikel Ibagutxi

Ez zait gaizki iruditzen, baina nere ustez giroa sortzeko beste ekimen batzuk egokiagoak lirateke: musika festivalen bat edo. Elkarbizitzaren izenean taberna denetan sartzearen proposamena ona da baina uste dut besterik barik ohitura kontua dela gehienetan, tabua baino gehiago.

Lehiaketa

Zein da?



Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

Saria:
Mikel fisioterapia zentroan masaje bat



Aurreko aleko erantzuna
Iraitz Ibarzabal


Irabazlea
Andrea Olaizola



Deitu **943 75 13 04** edo e-maila bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Elkarrizketa

**IXA RODRIGUEZ (1982, SORALUZE)****Boxeo-eskolako irakaslea**

Sorabox eskola sortu duzue herrian. Zein helbururekin?

Boxeoaren onurak belaunaldi ezberdinetako soraluzetarrei helaraztea gustatuko litzaiguke, boxeoak klixe bati baino gehiagori aurre egin behar baitio. Batzuek uste dute boxeoan soilik indarkeriazko metodoak erabiltzen direla helburu biolento bat lortzeko, funtsean, parean dagoenari muturra apurtzeko praktikatzen dela eta ez da horrela, kirol zintzoa da.

Praktikan zer da landuko duzuen?

Kontaktua lantzeko ariketak egingo ditugu, baita bizkortasuna eta orekaren zentzua hobetzeko entrenamenduak ere. Hanka eta besoen arteko koordinazioa eta giharrak indartzeko ariketa ugari egiten dira eskoletan, eta estresa askatzeko ere balio du. Kolpeak eman eta jasotzen ikasteko kontzentrazioa eta pazientzia ere lantzen ditugu. Aurrerago autodefentsa erakustea da asmoa.

Zer esango zenioke biolentoa dela uste dutenei?

Boxeolariok elkar jotzen dugu, baina arau batzuk ditugu, oso arau zehatz eta zorrotzak. Ring gaineko borroka bat ez da kaleko borroka bat, errespetu handia dago gure artean, laguntasuna dago bai borroka hasi baino lehen, bai ringean, baita behin borroka amaituta ere.

Zein animatuko zenuke bereziki eskoletan parte hartzera?

Umeak eta gazteak animatuko nituzke, diziplina zer den ikasten dute, euren burua hobetzeko erremintak beregatzatzen dituzte eta adiskidetasuna lantzen dute. Emakumeak ere animatuko nituzke indarra lantzeko eta euren gaitasunetan gehiago sinesteko.

Boxeo-eskolak urtarrilaren 7tik aurrera kiroldegian

Sorabox taldea sortu du Ixa Rodriguezek eta urtarrilaren 7tik aurrera 8 urtetik goragoko herritarrei zuzendutako boxeo-eskolak eskainiko ditu kiroldegian. Saiok martitzen eta eguenetan 10:00etatik 11:00ra eta astelehen eta eguaztenetan 20:00etatik 21:00ra izango dira, antzokian eta frontoian. Hilean 30 euroko prezioa dute eskolek eta izen-ematea 676866922 (Ixa) telefonoan egin behar da.



Ixa Bilbon eskaintzen dituen boxeo eskolak.

30 bikotek eman dute izena momentuz, Frontenis txapelketan

Binakako frontenis txapelketa abenduaren 27an jokatu da Soraluzeko eta Elgetako frontoietan eta dagoeneko 30 bikotek eman dute izena. Lehiaketan 16 urtetik gorakoak soilik lehiatu ahal izango dira eta izen-ematea abenduaren 23a baino lehen egin behar da, kiroldegira deituta 943 752466 edo kirola@soraluze.net helbidera idatzita. Soraluzeko eta Elgetako bikoteek 10 euro ordaindu beharko dituzte, gainerakoek 15 euro. Irabazleek 300 euro, txapela eta trofeoak jasoko dituzte; txapeldunordeek 150 euro eta trofeoak.



Gorka Varela eta Jokin Martinez, txapelketako arduradunak.

Oharrak eta agenda

Mendia:

2015erako federazioa egiteko epea zabalik da eta matrikulazioa eguenetan egin daiteke mendi-taldekoen lokalean (Pil-pileanean), 19:30etik 20:30era bitartean.

Herri-kirolak:

Herri-kiroletan jarduteko edota horiek bultzatzeko interesa dutenei zuzendutako batzar irekia egingo da urtarrilaren 13an, 19:00etan elkartegian (brigadako lokala).

San Silbestre 31n, 12:30ean

Urte zaharra agurtzea helburu duen San Silbestre krosa abenduaren 31n egingo da, eguerdiko 12:30ean Kontzejupetik hasita.

4.784
Pertsonentzako laguntza sozialak

Zuri esker
Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa

Ezohiko Requiema: abesbatzak organuarekin



Abesbatzako kideak.

Ezohiko emanaldia izango da zapatu Erratsaldean Ezoziko Ama eta Debako Aitzuri abesbatzek elizan elkarlanean eskainiko dutena. Gabriel Faureren *Requiem* obra interpretatuko dute Bilboko Javier Muru organistak lagunduta. Gainera, Eider Varelak *Mesias Sarritan* kantua interpretatuko du bakarlari moduan eta Muruk *Niño divino* obra estreinatuko du organoan. Kontzertua 19:45ean hasiko da, eta sarrera debaldekoa izango da. "Gutxitan ikusten den moduko emanaldia ikusteko aukera" izango dela ohartarazi dute abesbatzako kideek.

Iritzia



Ainhitze
Elizburu

Laztanak

"Volver al amor" Marianne Williamson-en liburua irakurri berri dut. Bertan, 70.hamarkadan Ohio-ko Unibertsitatean, bihotzeko gaixotasunen inguruan egindako ikerketa bat aipatzen da: untxiak kolesterol eta toxiko oso altuko dietekin elikatu zituzten. Untxi talde batek %60 sintoma gutxiago izan zituen eta arrazoia ez zen fisiologikoa. Untxi talde horri jaten ematen zien ikasleari untxiak laztantzea gustatzen zitzaioela jakin zuten; hori nahikoa zen untxiengan dieta toxikoak eragin txikiagoa izateko.

Minbizia duten pertsonetan ere frogatu da laguntza-taldeetan parte hartzen dutenak, parte hartzen ez dutenak baino gehiago bizi direla. Zein da zientziak identifikatu ezin duen "faktore psikoimmunitario" hori? Maitasuna da, laztanak dira?

Laztana: hainbeste erabiltzen ez dugun gure hiztegi hitezederra. Laztana-kulore eta forma askotakoak daude: laztantzen du ama ume jaio berriaren aurpegitxo, laztantzen gaitu lurra menditsasotara joatean haize bolada goxoz, begiradaz laztantzen dugu laguna, maitea...

Laztanak bigundu, xamurtu, goxotu egiten gaitu eta gure onera bueltatzen lagundu. Gozatzeke gaitasuna indartzen du eta gure barruko txokoak ireki. Honela, leku honetarik, komunikazio irekiago eta benetakoagoa eduki dezakegu. Goxatuz, gozatuz.

Gonbidapena luzatzen dizuegu, Urtarrilaren 3an, Gaztetxean, 10etatik 14etara egingo dugun tailerren parte hartzera. Intentzioa, elkarrekin goiz atsegin eta goxoa pasatzea da, beste komunikazio-mota bati aukera emanaz, laztanari merezi duen lekua aitortuz.

Kubatarrek zabalduko dute hamabostaldia




Gaztetxeko hamabostaldi kulturala domekan hasiko da Duo Jade bikote kubatarren kontzertuarekin eta urtarilaren 5ean amaitu, haurrentzako jolas eta txokoladarekin. Tarte horretan, bertsoak, kontzertuak, tailerrak, dantzak, proiektzioak, erakusketak... adin-tarte guztiendako egitaraua izango da. Aipatu dute "kontsumo materialaren urrezko egunetan kulturari lehentasuna eman nahi izan" diotela eta ekitaldi guztiak debalde izango direla. Herritarrak gonbidatu dituzte gaztetxera hurreratu daitezen.

Hamabostaldia iragartzeko kartela.

Morau, Montoia eta Otamendi

"Arainentzako himnoak" proiektua aurkeztuko dute Andoni Tolosa *Morauk* eta Bernardo Goienetxe musikariek abenduaren 28an, 13:00etan Gaztelupeko terrazan. Urtarrilaren 13an, berriz, Xabier Montoia idazlea izango da Billie gunean eta urtarilaren 27an Jose Luis Otamendik bere azken poema liburuko poemak irakurriko ditu. Bestalde, Gaztelupe jakinarazi du Udalean egin beharreko tramite administratibo batzuk direla-eta, domeketako terrazako kontzertuek behin-behineko etena izan dutela, baina tramite horiek bideratu bezain laster ekingo diotela berriz asteroko maiztasunarekin.



Zorion agurrak



Nagore Hermosa
Plaentzik Oarsoaldean duen embajadorea finari, zure mahikide-lankideak zoriona opa dizugu zure urtebetzean (eta urte berrian ere)!!!




Txarly
Abenduan 26xan 19 urte!
Primeran pasau eguna eta disfrutau Kuba aldetik!
Patxi haundi bat, bueltara arte!



Kattalin
Muxu potolo-potoluak
Plaentxiko zure lagun
Haizearen partetik!



Andrea Olaizola eta Intza Baglietto
Urtarrilan 4an eta 18xan, 29 eta 2 urte!
Zorionak loraederrak, muxu eta kilikili pila maitte zaittuenen partetik!



Malen, Joanes eta Aitor
Abenduan 18 eta 19xan, 6 eta 3 urte!
Zorionak hirukote!!! Izugarri maitte zaittuztegu.
Segi gure bihotzak alaitzen, txololatezko muxutxuak, etxekuen partez. Pa, pa ta pa!



Xabat Deza
Abenduan 27xan 10 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat, Argateko familixian partez.



Eneko Goenaga
Abenduan 19xan 8 urte!
Zorionak gure etxeko tximiñuari, patxo eta besarkadak maitte zaittugunon partetik.



Ihintza Garate Aizpuru
Abenduak 24an. Maitte zaitugunon partez, zorionak ihintza. Etxeko gatza eta piperra izaten jarraitu!!!



Ilargi Alberdi eta Iosune Casares
Abenduan 17xan 8 urte eta abenduan 24an 41 urte!
Zorionak bikote, muxu goxo bat etxekuen partez eta bereziki Ametsen aldetik. Oso ondo pasa eguna.

Jaiotakoak eta hildakoak



Iker Yeray Gonzalez Centeno
Ikerne Martin Cuenca
Nahia Mazorriaga Rodriguez



Elisabete Uzin Errazti
Pedro Maria Fernandez Ariznabarreta
Nieves Laskurain Arizaga
Maria Angeles Elizburu Gallastegui

Iragarkei laburrak

Hainbat tresna salgai: Organo elektrikoa 300 €, ordenagailu eramangarria eta inprimagailua 250€ eta mahai-tresnak (75 pieza) 160 €. ☎ **943 75 24 80** (Mari Karmen)

Jatearen plazera, bertatik bertara

Batzoki
JATEBARRA

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko karta razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

JUAN MARI
XRRXINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ENKERRIK ZIKRO PLAENTXIKETARRAKI
GUGEN IZANDEKO KONFIANTZAGETIKU

Zuri esker Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.	garrario publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.	Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.	mendekotesuna duten 26.472 pertsona ardatzen ditugu.
azken bi urteotan 1.000 lagun gehiago matrikulatu da euskaltegietan.	Gipuzkoa hondakinen % 42 birziklatzen ari da eta 2016an % 60ra iritsiko da.		



Iturria: "Harpasuak" Kontrargi

Ezkur urte, elur urte

Herria manta txuriaren azpian esnatu zen egun hartan eta Eli Lakuestak (Soraluze 1929-2000) Kalebarren eta Gabolats kaleak jaso zituen argazki honetan, Gila taberna paretik. Kontrargi argazki taldeak "Harpasuak" liburuxkan bildu dituen 125 argazkietako bat da hau, eta beste asko kiroldegiko erakusketa gelan ikusgai dagoen erakusketan erakutsi dituzte. Argazkiak abenduaren 31ra bitartean bisitatu daitezke, astegunetan 19:00etatik 20:30era eta zapatuetan 12:00etatik 13:30era.



LUISA ESNAOLA ZUBIZARRETA
I. URTEURRENEAN

"Urtebete da joan zinela gure ondotik, baina beti izango zaitugu gure bihotzean"

Etxekoak



Diseinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzarien fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Berruko altzairuak



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

Javier Alberdi



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Sorluze



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

1910etik

943 75 13 45



BOLINTXO
OKINDEGIA

943 75 25 43
SANTA ENA KALEA 4
SORLUZE



Txoko kafetegia

*Kafe ederra hartzeko
txokorik onena!*

*Kalebarren 22, behe,
Sorluze, Tel. 943 75 17 89*

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**



ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Urtarrilaren 10ean, Bilbora

**Autobusa herritik
Irteera: 16:00etan Estaziñotik**

Izena emateko lekua:
Arranoa, Bolia, Gaztetxea, Mendata,
Gaztelupe eta Batzokia.

Sarekide egiteko mahaiak
Abenduaren 24an (eguerdi eta iluntzean)
Abenduaren 31an (iluntzean)
Urtarrilaren 5ean (iluntzean)

**Denon artean
lor dezakegu!**

Ezberdinen arteko herritar mugimendua dispertsio politikaren aurka.



Soraluzeko
SARE

Antenak berregokitzeko prozesua

KONTULAN AHOLKULARITZA Santa Ana, 13 – 1 ezk. Tel. 943 75 17 82

“Antenen prozesu osoa kudeatzen laguntzen dugu”

Antenak urte amaiera baino lehen berregokitu behar direla eta, zalaparta eta noraez handia sortu da herritarren artean.

Zein da aldaketaren arrazoia?

Europako Legediak, printzipioz, urte amaierarako tb kate batzuk frekuentziaz aldatzera behartzen du. Badakigu instalatzaileak arazoak izaten ari direla osagaien hornikuntzarekin, beraz, hemendik jendea pazientzia pixka bat eskatzen diegu.

Zein pausu eman behar dira?

Antenistari deitu behar zaio komunitate bakoitzaren egoera ezagutzeko. Guk gomendatzen dugu norbere antenistari deitzea baina kanpokoa baldin bada, aurrekontua herrikoari eskatzea proposatzen dugu.

Dirulaguntza zenbatekoa da?

Ez da zehatza baina heldu daiteke gastuaren %80ra. 2014ko ekainetik



Maite eta Elena bulegoan.

2015eko ekainera bitarteko egokitzapenak onartuko dituzte.

Zein da eskaintzen duzuen zerbitzua?

Kudeaketa osoa bideratzen laguntzen dugu. Dirulaguntza eskariak

tramitatzen ditugu eta behar den dokumentazio guztia eskaera ere bai (akta liburua, IFZ...).

Electricidad
Soraluze

Antena eta TDT instalazioak

Errekalde, 40 – behea
Mug. 607 34 16 62

**Javier Mestre
Camino**

**ELEKTRIZITATEA ETA
TELEKOMUNIKAZIOAK**

ANTENEN INSTALAZIOAN
ESPERIENTZIA ZABALA
ETA KALITATEZKO LANAK

info@antenasjaviermestre.com
665 72 46 32

ELECTRONICA CRUZ
ANTENA KOLEKTIBO ETA PARABOLIKOAK

Telebista digitala
TDT kateen aldaketa

943 75 13 35
630 35 82 95
Santa Ana, 25 – Soraluze